

## KANPAINARAKO HAURRENTZAKO OINARRIZKO ESKULIBURUA

“Zure ahalegina, denon atsegina”.

### 1. Sarrera (oinarriak).

Kristau konpromisoa munduan IZAN eta EGOTEKO modu bat da, eta jarrera hauek hartzera gonbidatzen gaitu:

- **Anaitasuna:** “Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan bezala” (Jn 15, 12-16). Gure burua maite dugun moduan hurkoa maitatzen ikastea, zera esatea da: Ez dut zure egoeraz paso egiten, axola dit.
- **Aniztasuna:** Gure dohainak denon ongizatearen alde erabiltzen ditugunean, sendoagoak dira eta biderkatu egiten dira.
- **Konstantzia.** Lehenengo zailtasunen aurrean, pazientzia eta konfiantza izan behar dugu.
- **Ahalegina.** Besteei laguntzen diedanean nire ahaleginari balioa ematen diot eta nire eskuzabaltasuna handitzen da.

Partekatu zure alaitasun eta zoriontasuna, bereziki gehien behar duten pertsonekin; egin dezagun mundu hobe bat denon artean.

### 2. Abestia.

Otoitz apur bat egiteko, abesti bat entzutea proposatu da: Bana Dezagun (Maite Losada).

[LOTURA.](#)

*Musika eta letra: Maite Losada*

*Marrazkiak: Begoñazpi Ikastolako dbh 2. mailako ikasleak*

*Bideo edizioa: Emilio Mañas*



Bana Dezagun (Maite Losada) - YouTube



YouTube · emilioportu

Ume askok Ameriketan  
ez daukate zuk daukazuna. [2]

Horregatik bana dezagun  
Zuk daukazuna, nik daukadana [2]

Abentura liburuak,  
Oso ipuin dibertigarriak,  
Koloretako arkatzak margotzeko.

Jantzeko arropak,  
Jolas atseingarriak,  
Familia, eskola, Maitasuna.

Ume askok Afrikan ere  
Ez daukate nik daukadana. [2]

Horregatik bana dezagun  
Zuk daukazuna, nik daukadana [2]

Parkeak, igerilekuak,  
Garraiobideak,  
Mendiak eta hondartzak,  
Oporrak emateko.

Sendagaiak, jakiak  
Eta musika diskak,  
Gabonetan betetzen den Itsulapiko bat.

Ume askok Indian ere  
Ez daukate nik daukadana. [2]

Horregatik bana dezagun  
Zuk daukazuna, nik daukadana [2]

Ume askok auzoan ere  
Ez daukate nik daukadana. [2]

Horregatik bana dezagun  
Zuk daukazuna, nik daukadana [2]

### 3. Otoitzerako.

#### Jarduera



Jesusek abentura bat bizitzera gonbidatzen gaitu: Gure ingurukoak doan eta modu desinteresatuan maitatzea. Jesusek zera esan digu: “Etorri eta ikusiko duzu”, etorri eta egin bat nire lagun-taldearekin.

Erantzutea dagokizu. Jesusek ez dizu ondo entzuten, zarata handia dago, plan asko, jarduera asko. Momentu ona da isilune bat egiteko, zeure barruko ahots horri entzuteko: “Etorri eta ikusi.”

Idatzi gutuna Jesusi eta esan zergatik jarraitu nahi diozun, zer den beragandik gehien atsegin duzuna. Esaiozu zeren beldur zaren ere, zer iruditzen zaizun zaila edo ezinezkoa. Konta iezaiozu dena, berak maite zaitu eta zure erabakiak errespetatuko ditu.

#### Otoitzerako testua

Ahoz gora irakurri eta komentatu daiteke, eta hurrek ekintza zehatzen bat proposatu dezakete ahoz edo idatziz, astebetetz edo egiteko moduko zerbait, besteei laguntza emateko.



OTOITZA

**Jauna, lagun iezadazu zerbitzua ematen.**

Jesús, zure bidea jarraitu nahi dut  
Alai eta prest bizi  
Nire anaia-arrebei laguntzeko

Nire familian, nire lagunekin,  
Eskolan, klubean edo auzoan.

Zuk esaten didazun lekuan.

Adi egon nahi dut  
Besteen beharrianen aurrean  
Bereziki  
Sufritzen duten pertsonekin  
Zure modukoa izan nahi dut

Guztiei zerbitzua eman  
Lagun iezadazu lortzen

Marcelo A. Murúa.

## 4. Dinamika

**Martintxo txikiaren oparia.**Egun batez, Martintxo txikia eskolan zegoela, andereñoak bere hatz magikoa ahoan jarri zuen denak isilarazteko:

Denok hatz magikoa ahoan jarri eta “sssss” esan behar dugu, isiltzeko

Eta denak isildu zirenean, hizketan hasi ziren:

- Badakizue zuen ikaskide Jone ospitalean dagoela gaixorik. Bere amak esan dit Jone gero eta tristeago dagoela, eta eskatu dit denon artean pentsatzeko ea zer oparitu ahal diogun.  
Beraz, biharko zuetako bakoitzak pentsatu beharko du zein izan daitekeen oparirik onena, Jone ospitalean pozik egoteko.

Jone Martintxoren lagunik onena zen, horregatik, gau osoa eman zuen pentsatzen zer oparitu ahal zioten bere lagun maiteari, eta azkenean lo gelditu zen.

Hurrengo egunean, eskolan, andereñoak bere hatz magikoa ahoan jarri zuen denak isilarazteko.

Denok hatz magikoa ahoan jarri eta “sssss” esan behar dugu, isiltzeko

Eta denak isildu zirenean, hizketan hasi ziren:

- Orain, esadazue zein opari pentsatu dituzuen, eta denon artean erabakiko dugu zein den onena, ospitalera eramateko.

Denek altxatu zuten eskua, Martintxok izan ezik, erdi lo baitzegoen. Banan-banan joan ziren esaten pentsatutako opariak.



Batek baloi bat esan zuen.

Eta denek esan zioten: **Ez, ez, baloi batek bote asko egiten ditu ospitalean edukitzeko.**



Beste batek esan zuen: Kometa bat.

Eta denek esan zioten: **Ez, ez, kometa batek oso altu egiten du hegan ospitalean edukitzeko.**

Beste batek esan zuen: Bizikleta bat.

Eta denek esan zioten: **Ez, ez, bizikleta bat oso arin dabil ospitalean edukitzeko.**

Beste batek esan zuen: Tronpeta bat.

Eta denek esan zioten: **Ez, ez, tronpeta batek zarata handia egiten du ospitalean edukitzeko.**



Neskato batek esan zuen: Patin batzuk.

Eta denek esan zioten: **Ez, ez, patinak ere oso arin doaz ospitale batean ibiltzeko.**

Beste neskato batek esan zuen: Pelutxezko hartz bat.

Eta denek esan zioten: **Ez, ez, opari horrek ez dauka batere graziarik.**

Beste batek esan zuen: Buruhausgarri bat.

Eta denek esan zioten: **Ez, ez, buruhausgarri batek buruko min handia emango dio.**

Eta horrela opariz opari joan ziren, baina beti aurkitzen zieten akatsen bat ospitalean oparitzeko.

Ez ziren ados jartzen, denak batera hitz egiten, ea zein izan zitekeen oparirik onena.

Baina orduan andereñoa konturatu zen Martintxo txikiak, Joneren lagunak onenak, ez zuela oraindik oparirik proposatu.

Orduan, andereñoak bere hatz magikoa jarri zuen ahoan, denak isilarazteko.

**Denok hatz magikoa ahoan jarri eta “sssss” esan behar dugu, isiltzeko**

Eta denak isildu zirenean, andereñoak Martintxo txikiari galdetu zion ea zein opari pentsatu zuen.

Martintxok eskuaz igurtzi zituen begiak, erdi lo...

...Eta hauxe erantzun zion andereñoari: Pentsatu dut Jone berriro pozik egoteko egin ahal diogun oparirik onena egun desberdinetan ospitalera bikoteka bisitan joatea dela, eta berak nahi duen bezala jolastu. Jostailuek baino, nire lagunak ikusteak emango lidake niri pozik handiena.

Martintxok hitz egiten amaitu zuenean, isiltasun handia egin zen.

Eta bat-batean, txalo zaparrada bero bat eman zioten, pentsatutako opari onarengatik.

Bere oparia aukeratu zuten, eta egun bakoitzean bi lagun joan zitzaizkion ospitalera bisitan.

Horri esker Jonek poza berreskuratu zuen, eta hurrengo astean, harrigarria bazirudien ere, sendatuta zegoen.

Eta hala bazan ala ez bazan, sar dadila kalabazan.



© Cien Sinek Pheon - esn54919770

**José Real Navarro**

## **Elkarrizketarako galderak**

- 1.- Zergatik zegoen triste Martintxoren laguna?
- 2.- Zer zen Martintxoren oparia? Zergatik aukeratu zuten Martintxoren oparia?
- 3.- Zu ospitalean egongo bazina gaixorik eta triste, gustatuko litzaizuke zure lagun eta ikaskideak zuregana joatea zurekin egin eta jolasteko?

4.- Gogoratu orain baten batek zuengatik egindako gauza onen bat, poza eta zoriona ekarri dizuena.

## 5. Itxiera

Opari batzuek ez dute dirurik kostatzen, baina hain onak dira, triste dagoenari poza ekartzen diote, Joneri geratu zitzaion bezala; esaterako, triste dagoen norbaitekin jolastera joatea egin dezakegun opari on bat da, edo bakarrik eta lagunik gabe dagoenari gure laguntasuna ematea, edo min egiten ari zaizkion norbait defendatzea, edo baten bati laguntzea egoera zail batean badago, edo gurea den zerbait partekatzea baten batek eskatzen digunean, edo marrazki edo eskulanen bat egitea lagun bati edo gurasoei beren urtebetetzean emateko, edo besteekin atseginak eta edukazio onekoak izatea, edo barkamena eskatzen digutenean bakeak egitea edo guk geuk barkamena eskatzea, eta beste hainbat gauza gehiago...

Norbaitek horrelako zerbait egiten duenean, beste pertsonari opari bat egiten ari zaio. Ez du dirurik balio baina dagoen gauzarik baliotsuena da, bihotzetik irteten delako... eta horrek beti ematen du poz handia.